

Borondatezko programa da, beraz, parte hartu nahi ez duen ikaslearen legezko ordezkariak bere kabuz eskuratu beharko ditu testuliburuak.

_____ Jaun/Andereak
NAN: _____ zenbakidunak, Bigarren Hezkuntzako **2. kurtsoa** egingo duen _____ ikaslearen legezko ordezkari naizen aldetik,

ADIERAZTEN DUT

Ikasle honek Testuliburuak eta Curriculum-Materialen Kudeaketa Solidarioa egiteko Programan 2024-2025 ikasturtean parte hartzeko nahia. Halaber, Programaren xedea eta aplikazioaren berri izatea, eta azkenez hurrengo arauak onartzea.

1. Programa Ebazpenaren arabera, berrerabil daitezkeen testuliburuak eta curriculum-materialak Hezkuntza Administrazioarenak izango dira, eta, ikasturtea amaitutakoan, ikastetxean bertan geratuko dira hurrengo ikasturtean berriz erabiltzeko, behin ongi zaindu direla eta hurrengo ikasturtean, berriz, erabiltzeko moduan daudela egiaztatuta; betiere zentroaren antolaketarako eta funtzionamendurako arautegiak ezartzen duena aintzakotzat hartuta.
2. Nire seme-alabak testuliburuak eta curriculum-materialak maileguan izango ditu ikasturte batean erabiltzeko.
3. Programa Ebazpenaren arabera, ikasle bakoitzaren ekarpena dela eta, **45€ ordainduko ditut ikastetxearen idazkaritzan** edo KUTXABANK banketxeko hurrengo kontuan:
KUTXABANK: ES50 2095 0611 09 1090178962
Kontzeptua: Ikaslearen izen-abizenak/ Liburu solidarioa
4. Ikasturte amaieran testuliburuak eta curriculum-materialak institutuan bertan utziko ditut, hurrengo ikasturtean erabiltzeko moduan daudela egiaztatuta, beti ere prest egonda:
 - a) Ikastetxeak egingo dituen kontrolak egiteko, araudiaren araberrako kontrol ekonomikoa barne.
 - b) Testuliburuak eta curriculum-materialen erabilera eta zaintza ona egitea. Testu liburuetan ezin da idatzi, azpimarratu, margotu...
 - c) Ikasturteko azken egunean, ekainaren azkenengo klase egunean hain zuzen ere entregatzeko, edo ikastetxean ikasteari utziz gero ikastetxe aldatzeko, ikasleak alde egin aurreko egunean.
5. Programaren Batzordeak ikasturteko azken klase egunean testuliburuak eta curriculum-materialak ikuskatuko ditu, hondatutzat hartuko dira:
 - 1- Orriren bat falta bada.
 - 2- Azpimarratuta, zikinduta edo apurtuta badago.
 - 3- Itxura txarra badu: zikinduta, bazterrak tolestuak...
 - 4- Azalak solte badaude.
6. Batzordeak **erabilera txarra** egin duen ikaslearen legezko ordezkariari esango dio **galdu, apurtu edo hondatu duen ikasmateriala berriro jartzeko zehaztutako epe barruan**. Epea amaitutakoan, ikaslearen **legezko ordezkariak ez badu ikasmateriala berriro jarri, ikasleak EZINGO DU hurrengo ikasturtean Programan parte hartu**.
7. Jasoko ditudan testu liburuak berriak zein berrerabiliak izatea.

8. Testu liburuak plastikozko azala ez itsaskorraz babestea eta ikaslearen izena etiketa batean jartzeko.

Azkenez, Programa barruan hurrengo irakasgaien testu liburuak sartuko dira:

- **Ingelesa**
- **Matematika**
- **Euskara**
- **Geografia eta Historia**
- **Natura Zientziak (Fisika eta Kimika)**
- **Gaztelania eta Literatura / Lengua Castellana y Literatura**
- **Frantsesa**

Laudion, 2024ko ekainaren 14an

Zuzendaritza Taldea

Ikaslearen legezko ordezkariaren sinadura